GIPUZKOAKO
Ostiraila, 2019ko urtarrila

Kerman Garralda Zubimendi

Egun, arrain txikiak eta material sintetikoak erabiltzen dira atunak erakartzeko, eta atzera gelditu dira iraganeko teknikak. Halere, ezagutza gal ez dadin, Aitor Buitronek, Donostiako Untzi Museoko hezkuntza arduradunak, lantegi didaktiko bat eskainiko du Ezkioko Igartubeiti baserrian, urtarrilaren 26an. «Kantauri itsasoan erabili izan diren arrantza teknikak jorratzen ditugu Untzi Museoan, *kuzan* eta *xaxian* teknikak, besteak beste. Arto-malutaren erabilera da teknika hauen berezitasuna», azaldu du Buitronek berak.

Artaburua estaltzen duen hostoa da arto-maluta. «Itsasoratu aurretik, malutak garbitu, zuritu, lehortu eta metalezko orrazi batekin zatitzen ziren, eta itsasontziaren mugimenduarekin, bizirik dagoen arrain baten itxura hartzen zuen», dio Buitronek. «Amua estaltzeko erabiltzen zen maluta», borobildu du.

Atuna nahastu, eta, arrainari kosk egingo diolakoan, amua irentsaraztea da helburua [illegible] plea eta eraginkorra. «Zehatzmehatz ez dakigu noiz hasi ziren teknika hau erabiltzen, baina XVIII. mendearen inguruan kokatzen dute adituek», argitu du hezkuntza arduradunak. Kontuan izan behar da XVI. mendera arte euskal herritarrek ez zutela ezagutu artorik, eta urteak behar izan zituztela uzta oparoak izateko teknikak garatzeko.

Halere, Buitronek azpimarratu du arto-maluten erabilera ez dela soilik Euskal Herrira mugatzen, Kantauri itsaso guztian baitzegoen zabalduta. «Portu bakoitzak bere berezitasunekin prestatzen zuen amua. Esaterako, toki bakoitzean desberdin egiten zen maluta pitara lotzeko korapiloa. Forma desberdin horiek ezagutuko ditugu Igartubeitiko lantegi didaktikoan».

Denbora igaro ahala, zaharkituta gelditu dira iraganeko arrantzaleen trikimailuak. «Baserri munduarekin gertatu bezala, arrantza mundua ere aldatzen ari da», azaldu du Buitronek. Bere esanetan, arrantzaren pisua txikitu egin da gizartean, eta sektorea garatu eta profesionalizatu egin da. «Donostiako portua da horren adibide argia. Jada ez dago arrantzontzirik. Eta inguruko portuetako arrantzontziak asko industrializatu dira». Gainera, itsasoko espezieen bizirautea bermatzeko neurriak zorrotzagoak dira orain, eta horrek, askotan, mugatu egiten ditu arrantzaleak. «Nazioarteko hainbat batzordek erabakitzen dute herrialde bakoitzak zenbat kilo arrain har dezakeen. Gertatu izan da sasoi batean espezie bat ezin arrantzatzea egoera larrian zegoelako».

Beharrak, halere, izan ditzake bere abantailak: «Hegaluzearen arrantza, esaterako, era tradizional eta jasangarrian egiten da oraindik. Izan ere, hegaluzearen egoera dela eta, baxuak dira kuotak», argitu du Buitronek. «Era tradizionalean arrantzatzea da modu jasangarri batean egiteko biderik errazena». Izan ere, banan-banan harrapatuta, handiagoa da arrainen kontrola.

Banaka arrantzatu arren, aldaketak izan dira mendeotan. Arrantzaleek, egun, punta-puntako teknologia erabiltzen dute arrainek ihes ez egiteko [illegible] duela hiru mende, arto-malu[illegible] zen eskura zeukaten teknik[illegible] rik puntakoena: «Garai bat[illegible] ez zuten material sintetikoe[illegible] hurbilen zituzten baliabide[illegible]

Artaburuak estaltzen dituen ostoa da arto-maluta; landu egin behar da arrantzarako erabili aurretik. K. GARRALDA ZUBIMENDI

Arto-malutek arrainen itxura hartzen dute olatu artean, eta garai bateko arrantzaleek atunak arrantzatzeko baliatzen zituzten. Gaur egun, galdu egin da teknika hori, baina lantegi didaktikoa egingo dute Ezkioko Igartubeiti baserrian.

Baserritik itsasontzira

> **Garbitu, zuritu, lehortu eta zatitu egin behar du[illegible] malutak. Mugitzean, bizirik dagoen arrain baten itxura hartzen du[illegible]**

> **«Era tradizionalean egiten da hegaluzearen arrantza. Hori da modu jasangarrian egiteko biderik errazena»**

> **«Nahiz eta herri industrializatua garen, nekazaritzak eta arrantzak harreman ekonomikoa sortu dute[illegible]**
>
> **Aitor Buitron**
> Untzi Museoko hezkuntza arduradun[illegible]

erabili behar izaten zituzten [illegible] terako, oso ohikoa zen biziga[illegible] ko artilea erabiltzea»; gogorra[illegible] iraunkorra da ardi latxaren a[illegible] lea, ur hotzetan irauteko egi[illegible] Artoa ere ongi mantentzen du[illegible] labeteetan; izan ere, udaberri[illegible] landatzen da eta udazkenean [illegible] udan izaten da atunaren arrantz[illegible]

Nekazariak, kostatik gera[illegible]

Nekazal mundua eta kostaldea[illegible] daude horren urrun. «Harremanak zuzena izan dute bi munduek», baieztatu du Buitronek. «Iraganean oso ohikoa zen arrantzaleek tzietan Goierri edo Nafarroako [illegible] rraldeko nekazariak izatea. Nekazari askok itsasora jotzen zuten [illegible] uzta jasotzeko garaia ez zenean. Azkar trukatu zuten batzuetan besteen jakinduria, eta teknika berriak garatu zituzten. Tamalez, arto-malutaren erabilera ez da [illegible] gutarako artilea.

Sagardoak ere ongi egiten du [illegible] baserri eta arrantza munduen [illegible] teko zubi lanak: XVI. mendera [illegible] hilabete askoko bidaiak egiten [illegible] tuzten euskal arrantzaleek. [illegible] eurekin eramaten zuten sagardoa. Izan ere, alkoholari esker [illegible] da usteltzen, eta eskorbutoa [illegible] besten zituen arrantzaleak. [illegible] ken finean, nahiz eta herri [illegible] trializatua garen, ez dugu [illegible] behar nekazaritzak eta arrantza [illegible] harreman ekonomiko bat [illegible] dutela gure herrian». Azken [illegible] izan zen garai bateko [illegible] rriaren motorra, baina [illegible] tzak ematen zirkion [illegible] behar zituen baliabideak.